

Hitzarmen berriaren Negoziazio Mahaia 2. bilera

Dakizuen moduan, pasa den asteko irailaren 30an izan genuen Lan Hitzarmenaren negoziazio mahaiaren lehen bileran, hitzarmen berriaren negoziazioa edukiz hustu eta 8/2010 errege lege dekretuan jasotzen diren murrizketak partzuergoan ere aplikatu nahi dituztenez, sindikatuokin "negoziatu" eta gure konplizitatea lortu nahi zutela adierazi zitzaigun.

Hau dela eta, pasa den urriaren 8an, beste beste bilera batera deitu gintuzten, bilera honen helburua murrizketei buruz hitz egitea zelarik. Partzuergoak egindako "proposamena", txantaia bezala soilik kalifika daiteke, izan ere planteatzen dutena ondorengoa da: sindikatuok soldata jaitsiera negoziatzeko prest bagaude, lanposturik ez dute ukituko; aitzitik, soldata murrizketa negoziatzen ez badugu soldata jaisteaz gain lanpostuak murriztuko omen dituzte.

Jarrera hau erabat onartezina da, eta ELAk argi eta garbi adierazi zuen ez dela txantaia honetan eroriko eta ez dugula inolako mehatxurik onartuko. Murrizketen aurka gaude eta kitto!! Beldurraren estrategia soberan ezaguna zaigu eta ondo dakigu joko horretan behin sartuz gero estrategia hau behin eta berriro erabiliko dutela langileon eskubide guztiekin amaitu arte.

Ordezkaritza duten beste sindikatuak kontsulta egin behar omen dute beren sindikatuokin eta ostiral honetarako emango omen dute erantzuna. Espero dugu benetako sindikatu moduan jokatu dutela eta ez Partzuergoaren ekintza murriztaileak legitimatuko dituen agente moduan.

Aurrez esan genuen bezala, mahai gainean jartzeko duten bakarra murrizketa bada ez dute ELAren partehartze eta konplizitaterik lortuko.

Informatzen jarraituko dugu!!